

# Asisko gutuna

2008ko azaroa. 1.go printzipioa: Egunero, Jainkoarekin

harreman pertsonalean jartzen saiatu. 1. zenbakia

Joan den urriaren 25ean, Asisko Espirituaren Eguna ospatzen zen Arantzazun. Egun horretan bertan sortzen eta abian jartzen zen Asis Sarea, eguneroko bizitzan frantziskotar espiritualtasuna bizi nahi duten laikoei zabaldutako sare soziala. Sare honetan parte hartzen dugun lagunok lau printzipio partekatu nahi ditugu.

Horietatik hiruk gure eguneroko bizitzari begiratzen diote: harreman/otoitz pertsonala Jainkoarekin, apaltasuna barnera begiratzeko argi gisa, eta solidaritatea kanpora begiratzeko argi gisa. Laugarren printzipioak gonbidatzen gaitu: anaiartea konpartitzera, zerbait elkarrekin jartzera. Hau guztia ahalbideratzeko Asis Sareak bi medio jartzen ditu:

- Lehenik eta behin, hil bakoitzaren erdi aldera, gutun hau helaraziko diegu posta- edo email-helbidea ematen diguten guztiei. Hurrenez hurren eta biran-biran, gogoetarako testu baten eta Ebanjelioaren eta san Frantziskoren pasarteen irakurketaren bidez, gai batzuk, elkarrekin jarri nahi ditugun aipaturiko lau printzipioak landuko dituztenak, garatuko ditugu. Oraingoan lehenengoarekin hasten gara: norberaren harremana Jainkoarekin.
- Eta bigarren tokian, hil bakoitzeko azken osteguneko 19,30etan hileko otoitz topaketa egingo dugu hainbat herritan, otoitz hori hemen eskainitako testuetan inspiratuko delarik. Gutunaren azken aldean ikus dezakezue, azaroan otoitz hau egingo den lehen herrien erreferentzia.

Asis Sarea elkarrekin jartzen dugunok ez dugu talde edo erakunderik osatzen, ez dugu bilera edo eztabaidatara joan beharrik, ez eta kuotarik ordaindu beharrik ere. Besterik gabe, helbide batek lotzen gaitu, hileko gutun hau hartu ahal izateko. Lotura txikitxo horretatik abiatuz, norberak erabakitzen du, bere bizi-momentuaren arabera, nondik hasi nahi duen bide hau, noraino heldu nahi duen, eta zein erritmotan egin nahi duen. Ez da ezinbestekoa, adibidez, hileko otoitzean esku hartzea. Parte har daiteke, ala ez, edota pasiboki esku hartu bere zentzua ezagutzeko eta ulertzeko. Asis Sarea irekia dago zuretzat.

## Gogoetarako gaia

### Zer esan nahi du, Jainkoarekin harreman pertsonalean jartzearen bila ibiltzeak

Zer esan nahi du, Jainkoarekin topatzea bilatzeak? Ze bide egin behar da? Nondik hasiko naiz bila? Beti egarriz dagoen gure bihotza erantzun bila dabil, harantzago bilatzen du. Geure izatearen sakon-sakonean Jainkoaren irrikaz bizi gara. Hark jartzen du guregan desio hori. Bilaketan, barne-muinean, otoitzean, Ebanjelioan, maitasunean ematen da topaketa hori. Eliza dugu bideo lagun. Historian zehar, gizon-emakumeek beren egarririk harantz ibili dira bila, eta jakin dute, Jainkoak otoitzean argia, barnetik datorren bizia, ematen duela. Hara hemen zein bidetatik datorren Jainkoa gure bila: Jainkoaren aurrean jarri, isilik egon eta kontenplatu, eskerrak eman eta eskatu, Hari hitz egin eta geure burua haren eskuetan utzi.

Zer da Jainkoarekin pertsonalki topatzea? Ze zentzu ematen dio Jainkoak nire bizitzari? Galdera zail eta korapilatsuak dira hauek, baina bizitzan onena denarekin, garrantzikoena denarekin, erdi-gunenekoa denarekin zerikusia dutenak. Jesusekin aurkitzea maitasunarekin aurkitzea da, maitasun-iturriarekin, gordetako altxorarekin. Filosofo batek esan zuen: "Ongia gaizkirik sakonena baino sakonagoa da".

Jainkoarekin topatzeak on sakonarekin aurkitzearekin zerikusia du. Jainkoari begiratzeko zera da: geure barnera begiratzeko eta alde guztietatik gainezkatzen gaituen egia aurkitzea. Inork ikusi ez duenari begiratu ahal izatea, maitasuna bizitzea da; eta bihotzeko alaitasuna eta ontasuna ikusteari, itxaropenari, bidea irekitzen dio. Topaketa honen lekukoak aurkitzen ditugu historian zehar: Frantzisko da lekuko handi horietako bat. Hau da Jesusengana hurbiltzea: geure txikitasuna, mugak eta baldarkeria bakean ikusi ahal izatea, geure mugengatik eskerrak eman ahal izatea, horrek ahalbideratzen baitigu Jainkoaren bila ibiltzea eta Harekin amets egitea. Geure burua onartuz bizitzea da.

Jesusekin aurkitzea Bestearekin aurkitzea da txikien denetik, erarik apalenean, txikia den guztia garrantzitsuen bihurtzen tokitik. Jesusekin aurkitzetik, Hura maitatzetik eta Hark maitatuak izatetik zera dator: geure barnean denak zentzua duela bizitzea. Ziurtasun hau bizi dugu Harekin: Haren maitasunak ez gaituela sekula eskutik uzten, zernahi gertatu Jainkoak maite gaituela.

## Ebanjelioko pasartea: Mt 13, 44-46

"Jainkoaren erregetzarekin, landan ezkutatua dagoen altxorarekin bezala gertatzen da. Norbaitek aurkitzen duelarik, berriro ezkutatu egiten du, eta pozaren pozez joan, dituen guztiak saldu eta landa hura erosten du. Era

berean, Jainkoaren erregetzarekin, harribitxi bila dabilen tratulariarekin bezala gertatzen da. Balio handiko bat aurkitzen duenean, joan, bere gauza guztiak saldu eta hura erosten du".

## Frantziskotar pasartea

## Hiru lagunen legenda, 3. kap.

Asisa itzuli eta egun asko baino lehen, arratsalde batez, bere lagunek taldeko buru hautatu zuten, gastuak bere gogora egin zitzaizkien. Orduan, beste askotan egin izan zuen bezala, otordu oparo bat prestatu zuen.

Otordua bukatu eta etxetik irten zirenean, lagunak aurretik zihozkion kaleetan barrena, kantuan. Bera, agintemakila eskuan, besteak baino atzeraxeago zihoan, ez kantuan, bere gogoetetan murgilduta baizik. Bat-batean jaunak hitz egin zion, eta hain gozotasun handiz bete zitzaion bihotza, ezin baitzuen hitzik esan, ez eta mugitu ere; ez zuen ezer sentitzen, ez entzuten, gozotasun hura izan ezik. Gozotasun hark erabat zentzugabetua utzi zuen; eta, berak gerora esan zuenez, une hartan dena txiki-txiki egin balute ere, ezin izango zuen handik mugitu.

Lagunek atzera begiratu eta berengandik urruti samar ikusi zutenean, berarengana itzuli ziren eta, izuturik, beste gizon bat bezala ikusi zuten. Eta galdetu zioten: “Zertan ari haiz pentsatzen, gure ondoren ez etortzeko? Ezkontzea

pentsatzen al duk, ala?” Hark bizi-bizi erantzun zien: “Arrazoi duzue. Inoiz ikusi duzuen emazterik nobleena, aberatsena eta ederrena hartzea pentsatu diat”. Haiek barre egiten zioten. Baina Frantziskok ez zioen hau bere kabuz, Jainkoak argituta baizik: izan ere, berak hartu zuen erlijioso-bizitza zen emaztea, beste guztiak baino nobleagoa, aberatsagoa eta ederragoa bere pobretasunean.

Orditik bertatik hasi zen bere burua mespretxatzen eta lehen maite zuena gutxiesten. Ez erabat, ordea, ez baitzen artean guttiz askatu munduko hutsalakerietatik. Baina poliki-poliki munduko zaratatetik apartatuz, Jesu Kristo bere bihotz barnean gordetzen ahalegintzen zen; eta, dena salduta erosi nahi zuen harribitxia ikusleen bistatik ezkutatu nahian, isilka otoitz egitera joaten zen maiz eta ia egunero. Lehentxeago dastatu zuen gozotasunak eragiten zion nolabait horretara; sarri izaten zuen haren bisita, eta plaza eta toki agerietan aurkitzen zelarik ere, otoitzera bultzatzen zuen.

## Salmo

## Sal 63(62):2-9

Jainko, ene Jainko, lehia biziz nabilkizu bila,  
zure egarri da nire barrena,  
zure irrika naizen guztia,  
lur lehor, agor, urik gabea bezala.  
Egon nadila horrela santutegian zuri begira,  
zure indarra eta ospea ikusiz.  
Bizia baino ederrago zure maitasuna!  
Nire ahoak ospatuko zaitu;  
bai, bizitza guztian bedeinkatuko zaitu,

zuri dei eginez altxatuko eskuak.  
Jakirik gozoenez bezala aseko naiz,  
eta nire ezpainen poz-oihuka goretsiko zaituzte.  
Gauetz ohean zuregan dut gogoa,  
zuri otoitzean igarotzen ditut orduak.  
Bai, zu izan zaitut laguntzaile;  
kantuz ariko naiz pozik zure hegalean itzalean.  
Zuri itsatsia nago oso-osorik,  
eta zure eskuinak eusten niri.

Azaroko elkarrekiko otoitzaldia 27an, ostegunean, 19.30ean egingo da, honako toki hauetan: Bermeo (Frantziskotarren komentua), Bilbo (Paduako San Antonio Kapera-Iralako Frantziskotarrak), Donostia (Presentación de María Ikastetxea), Gernika (Asisko Frantziskoren Parrokia), Iruñea (Asisko Frantziskoren parrokia), Tolosa (Klarisen komentua), Zarautz (Santa Klarako eliza)

Asis Sareari buruzko informazioa hartu nahi baduzu, edo gutun hau hiler hartzeko izena eman, deitu 646-214896 telefono zenbakira edo bidali mezua [asissarea@arantzazu.org](mailto:asissarea@arantzazu.org) helbide elektronikora.